



## EGUESIBARKO GAZTE PROGRAMAREN 2020ko AZAROAREN 25a VI. ARGAZKI LEHIAKETA

Emakumearen kontrako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna dela eta, Eguesibarko Gazte Programak VI. Argazki Lehiaketarako deia egin du, Udaleko Berdintasun Alorrarekin Elkarlanean.

Helburua indarkeriari aurrea hartzea da, eta horrekin batera, berdintasunezko tratua aldeko sentsibilizazioa egitea eta, ilustrazioaren bidez, gizonen eta emakumeen arteko tratu on eta berdintasun kontzeptuak transmititzea.

### 1. Gaia

Argazkietan erakuts daitezkeen jarrerak zerikusia izan beharko dute tratu onekin, errespetuarekin, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin, eta/edo gizonen eta emakumeen rolei buruzko estereotipoak ezabatzearekin, bai eta bi sexuen arteko harreman osasungarriekin ere. Halaber, bazterketa egoerak erakutsi eta salatzen ahalko dira. Ez da onartuko pertsonen osotasuna eta irudia kaltetzen dituen irudirik.

### 2. Parte-hartzaileak

12 eta 30 urte arteko pertsona guztiek izanen dute parte hartzeko aukera (biak barne). Horretarako, hiru kategoria ezarri dira:

- 12 urtetik 15era
- 16 urtetik 20ra
- 21 urtetik 30era

### 3. Argazkien ezaugarri teknikoak

Argazkiak formatu digitalean, koloretan, zuri-beltzean eta sepian soilik onartuko dira. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez 3 argazki aurkezten ahalko ditu.

### 4. Izen-ematea

Izen-ematea doakoa da eta argazkiak bidaltzearekin batera egingen da. Argazkiek argitaragabeak izan beharko dute, hau da, ez argitaratuak eta ez beste lehiaketa batzuetan aurkeztutakoak. Ez da zilegi izanen inolako argazkirik aurkeztea, baldin eta haren jabetza intelektualaren eskubide guztiak, salbuespenik gabe, ez badira lehiaketan parte hartzen duen pertsonarenak.



Argazkien tituluek hizkera barneratzailea eta errespetuzkoa erabili beharko dute. Ez dira baloratuko baldintza hori betetzen ez duten irudiak.

## 5. Lanak aurkezteko epea

- Argazkiak azaroaren 20ra arte aurkezten ahalko dira.
- Honako helbideotara bidaliko dira posta elektronikoz:
  - [serviciojuvenegues@hotmail.es](mailto:serviciojuvenegues@hotmail.es)
  - [juventudcaf@egues.es](mailto:juventudcaf@egues.es)
- Honako datu pertsonal hauek eman behar dira: izen-abizenak, posta-helbidea, harremanetarako telefonoa, argazkiaren titulua eta NANaren fotokopia.

## 6. Epaimahaia

Hona hemen epaimahaikideak:

- Gazteria, Emakume eta Genero Berdintasun arloko zinegotzia
- Argi Elkarteko kide bat
- Berdintasun Teknikaria
- Gazteria Programako bi langile

Hona argazkiak baloratzeko irizpideak: kalitatea (%20), originaltasuna eta sormena (%30), eta gaia, edukia eta irudiaren balio pedagogikoa (%50).

## 7. Sariak

Sari bat emanen da kategoria bakoitzeko, hots, 50 euroko txartel bat, Ibarreko saltokietan erosketak egiteko.

## 8. Epaimahaiaren erabakia eta sari banaketa

Epaimahaiak azaroaren 23an hartuko du erabakia.

Lehiaketan aurkeztutako ilustrazioak Udalaren webean jarriko dira ikusgai eta Gazte Programaren sare sozialetan zabalduko dira.

Epaimahaia irabazleekin jarriko da harremanetan sariak emateko.

## 9. Eskubideak

Lan sarituak Eguesibarko Udalaren jabetzapekoak izanen dira. Udalak badu eskubidea argazki sarituak argitalpen eta foiletoetan erabiltzeko, betiere irabazi-asmorik gabe eta egilea nor den argazki-oinetan adierazita.

## 10. Onarpena



AYUNTAMIENTO  
del VALLE de EGÚÉS  
EGUESIBARKO  
UDALA

CIF P3108500D  
C/ Garajonay, 1  
31621 Sarriguren  
Tel. 948163113  
igualdadberdintasuna@egues.es



Lehiaketan parte hartzeak oinarriak eta epaimahaiaren erabakia onartzea dakar berekin.